

Basque Team Fundazioa

**Avenida de los chopos S/N
64 Edificio CPT, Makaletako Etorb.
48992 Getxo, Bizkaia**

Getxon, 2024ko ekainaren 28an

Jaun-andre agurgarriak:

Komunikatu honen bidez jakinarazten dizuegu **BASQUE TEAM FUNDAZIO**TIK kanal etiko bat dugula denon eskura. Zuzenbidearen, eta indarrean dagoen arau-esparruan zehaztutako gobernu eta administrazio oneko eta etika arau edo printzipioen aurkako edozein jarrerari buruz jakinarazi ahalko gaitu bertatik, baita era anonimoan ere.

Horretarako, <https://fundacion-basque-fundazioa.canales-eticos.com/#/> helbidea gaitu dugu. Bertako plataforma digitaletik, modu erraz eta intuitiboan, komunikazio eta salaketa berriak egin daitezke, eta baita aurretik egindako komunikazio edo salaketaren baten jarraipena ere.

Komunikazioa jaso ondoren kanaletik, inpartzialtasun eta objetibotasunez kudeatuko da eta beharrezko instrukzio eta ikerketak egingo dira. Horretarako, ezinbestekoa da, bere baloraziorako, jakinarazten duen pertsonak ahalik eta informazio eta froga gehienak ematea.

BASQUE TEAM FUNDAZIOTIK informatzaile guztienganako ukigabetasun-bermea nabarmendu nahi dugu. Hortaz, pertsona informatzaile edo salatzaillearen aurkako edozein motako mendekuak guztiz debekatuta daude, eta salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa bermatuko da kontrakoa frogatu arte.

Gogoratu erakundearen barne esparruan komunikazio bat dakarrela kanal etiko honek. Hori dela eta, gogoan izan, edonola ere, erakunde edo agintaritzak eskudunek osatutako kanpoko kanaletara jotzeko aukera ere badagoela delitutzat hartu daitezkeen edozein egitate salatzeke.

Horrela, **BASQUE TEAM FUNDAZIO**AK gardentasuna, etika eta gobernu onarekiko erantzukizuna erakusten du, gure kanal etikoarekin erakundearen araudia betetzeari lagunduz, barnean nahiz kanpoan konfiantza giro bat sortzeko. Hortaz, hutsuneak zuzentzeko eta erakunde publiko gisa hobetzeko edozein motatako komunikazioak ematea eskertzen dizuegu.

Zuen esanetara geratzen gara, adeitasunez, agur.

Adeitasunez,



Stua.Olatz Legarza Albizuri

BASQUE TEAM FUNDAZIOA